




Akelarre. Nestor Barrenetxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarriz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

bertin

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Jon Folla:

«Urtero jaiak
berritzearen
aldeko
apostua
egiten dugu»



1999ko ekaina. 14. zkia. 125 pza.

Lege gordailua: BI-85-98

Troka Abentura ↔ Nerea Ribas ↔ Zurbaranbarriko jaiak

Betikoak



CÁSTOR JAUREGIBEITIA IBARRA (COCHERITO DE BILBAO)

Zurbarango Zelemintxu baserrian jaio zan 1876. urtean, beraz Cocherito de Bilbao baino, Begoñako Cocherito izango zan egokiagoa bere goitizena. Goitzen hori, bere lanbidetik jatorkon auto gidaria izan zalako kotxera batzuetan.

1897. urtean lenengoz zapaldu eban Bilboko zezenplaza novillero moduan eta 1900. urtean hasi eban benetako toreatzaile karrera. Bere sasoiako famatuenetakoa izan zan. Joselito eta Belmonte toreadoreek behin batean hartu eben ospea, kaltegarria izan zan berarentzat eta 1919.ko abuztuaren 31n erretiratu zan Bilboko zezenplazan Corchete izeneko zezen baltza hil ostean.

Guadarramako ospitalean hil zan 1928. urtean.

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa: 94 473 54 48
e-posta: berton@mail.com

ZUZENDARIA:
Aitziber Laskibar

ERREDAKZIOA:
Unai Cuevas, Arrate Diez, Zuriñe Uriarte, Joana Martínez, Irune Berro, Joana Etxebarria.

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi, Joseba Barrenetxea,

Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Edurne Basozabal, Idoia Irastorza, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Igor Zorrozueta, Iñaki Aurrekoetxea, Joseba Zelaia.

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoe-txea, Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000

AURKIBIDEA



| | | | |
|-------------------------------------|----|---|----|
| ▼ Betikoak | 2 | ▼ Mahatsberriak | 16 |
| ▼ Gazi Gozoak | 4 | ▼ Erreportaia, Zurbaranbarriko jaiak .. | 20 |
| ▼ Errezetak | 5 | ▼ Behetik gora, Eskolaren txokoa | 23 |
| ▼ Troka Abentura | 6 | ▼ Bota ba, Kirolak | 24 |
| ▼ Hileko argazkia | 7 | ▼ Bideak, Nerea Ribas | 26 |
| ▼ Begoña eta euskerea | 8 | ▼ Begizorrotza, Komikia | 28 |
| ▼ Berton dugu! Ekomensajeroak | 10 | ▼ Bidean gora, Mendi Ibilbideak | 29 |
| ▼ Bakarka, Jon Folla | 12 | ▼ Badatoz, Agenda eta horoskopoa | 30 |
| ▼ Inkesta, Selektibitatea | 15 | ▼ Bertsotan | 31 |

Aupa Mahatsorriok!

Azkenean amaitu eta bukatu dut, aurten EGA ateratu dut. Urte guztia eta osoa euskaltegian berridazketak egiten igaro ostean eta ondoren, azkenean bete dut nire ametsa, hau da, Bertonen artikulua bat idaztea edo izkiriartzea, alegia. Honela bada, kontatu diezazueket nola Santutxuko jaietan egun guztia eta osoa iragan eta pasatuko dudana euskaraz mintzatzen eta hitz egiten, zeren eta ofizialki euskalduna izatera iristeko eta heltzeko egin ditudan ahalegina eta esfortzua alferrikakoak izan ez dakizkidan orain euskaraz aritzea eta jardutea besterik ez baitut. Eta neureganatu dudana jakintza guztia eta osoa plazaratzeko aukera paregabe eta bikain honetaz profitatuz eta baliatuz, sinonimo eta antonimoen hiztegia aldean dudalarik, ez dut berriro men egingo zutabe hau eskribitzen duten letrabakoen aurrean. Izan ere, Euskaltzaindiaren lege eta arauen aurkako eta kontrako idazki zuzterbako eta ganorabako horiek behin betirako eta behingoz baztertu eta alboratu behar ditugu Lekua amaitu zaidala? Onena falta dut, ordea eta baina!. Utz ieza..

Firmaute: Egirletapeko Mahats orri edo hostoa

Belgikan baino txarrago



Kontu labanak etorri zaizkigu Belgika partetik, oiloak Kbateko, Ameriketatik etorri zen edabe baltza besteko. Dioxinak zer ziren ere ez genekiela, jan eta edanaren beldurrez gabiltza azkenokaz eta jan-edanaren egileek beldurrok honelako kartelokaz uxatu guran. Belgiarrak izan ziren lehenengo kalteak, eta ez dakigu han ere honelakorik atera ote den, baina ateraz gero, seguru-seguru bertako hizkuntza ofizial bietan aterako ziren: flandieraz eta frantsesez, Belgikako erresumak lurren gainean edabearen garbitasunaz duda izpirik ere daukan kristaurik izan ez ledin. Hemen, berriz, antza, euskaldunok ez dugu Coca-colarik edaten, edo dioxinek ez digute kalterik egiten, edo ardoarekin nahastuta edaten dugunez alkoholak desinfektatu egiten du, edo hemen euskaldunok ez da. Kalitatezko bermearekin.

Coca-Cola
MARCA REG.
INFORMA:
Todo el producto de este establecimiento ha sido fabricado en el País Vasco y cuenta con plena GARANTÍA de CALIDAD.

Aupa euskaldunberriok!



II. Soziolinguistikazko inkestaren datuak argitaratu ziren lehengo hilean. Aurreko Berton-en irakurtzeko parada izan genuen legez. Oraingo honetan datu horiei buruzko hausnarketatxo bat egin gura genuke. Ez auzo euskalduna eta erdaldunena zein den moduko lehietan hasteko, euskaltzaleok hemendik aurrerako ideiak eta ondorioak ateratzeko baino. Datuak ikusirik, ondorio erraza atera daiteke lehenengoz: Mahatserritaren artean erdaldun hutsak dira gehienak, inkestan deitzen zaien legez, "erdaldun zaharrak" edo "guztiz erdaldunduak". Euskaldunok minoria gara oraindik ere beraz, eta ez da harritzekoa, orain dela urte batzuk gutxiago ginen eta. Baina bada datu bat ondo erreparatzekoa: euskaldunen artean, euskaldunzahar bakoitzeko ia 3 euskaldunberri dira. Inondik ere, familia bidezko transmisioak baino arrakasta handiagoa izan dute ikastolek eta helduen euskalduntzeak, lan ona egin da duda barik arlo horietan euskararen ezagutza zabaltzen.

Gero eta jende gehiagok daki euskaraz, eta txalotzekoa da ikastolara umeak bidali dituzten gurasoen zein euskaltegian ikasi dutenen konprometua. Izan ere, ezinbestekoa da gurearen moduko auzune batean, beste ezer baino lehenago, euskara dakitenean kopurua igotzea. Ba ote du zentzurik gainera, gurean gehien bat, euskaldunzahar/euskaldunberri dikotomiak? Nork egiten dio normalizazioari ekarpen handiagoa? Edo hobeto esanda, euskararen kalitatea hiztunaren jatorrian bilatu behar dugu, ala, une honetan gehien batez, bizimodua euskaraz egiteko trabeak aurre egiteko konprometzu eta borondatean? Duda barik, konprometzu eta borondate handia dago euskaldunberri askogan, ilusioa eta gogoia, baita euskaldunzahar askogan ere. Euskal komunitatea denok osatzen dugu, zaharrak eta barriak, ume eta helduak, euskaldunok... eta elkarren artean denok dugu zer hartua: hizkuntza, gogoia, adorea, eta, batez ere, badugu elkarri zer esan eta zer entzun. Zorionak euskaldunberrioi!



errezetak

ZAINZURI ETA ESPINAKEN NAHASKIA


Osagaiak:

- 4 zaintzuri
- 150/200gr. espinaka
- 4 arrautza
- 2 berakatz
- gatza



Berakatzak txikitu eta su baxuan egiten jarri kolore pixka bat hartu arte. Espinakak beste lapiko batetan eta arrautzak pixkat irabiatu. Berakatzari espinakak gehitu eta ondoren arrautzak bota. Egurrezko koilara batekin dena nahastu arrautza egin arte eta bota. Bukaeran zatikatutako zainzuriak gehitu. Segundu batzuk itxaron eta gatza bota. Ogi frijitu zati batzuekin lagundurik atera daiteke nahaskia.

Oharra: Nahaskia beste zenbait osagairekin ere egin daiteke: txanpiak, ganbak, berakatz bigunak, ea.



Santutxun badugu abentura kirolak antolatzen dituen enpresa

TROKA ABENTURA MARTXAN

Troka Abentura taldeak, Javier Gorostiza eta Javier Fuentesen zuzendaritzapean, lehenengo saria irabazi zuen Lan Ekintzak antolatutako lehiaketan, maiatzaren 28an. Hau hasiera baino ez da: sortu berria da, baina etorkizun oparoa dauka enpresa honek aurretik.

☞ Joana Martínez

Troka Abentura sortzeko ideia duela bi urte jaio zen, lagunartean Alpeetara eginiko bidaian. Javier Gorostiza eta Javier Fuentes aspalditik zebiltzan monitore gisa lanean aisialdi taldeetan zein kanpamentuetan, eta euren kabuz aritzeko ordua zela erabaki zuten.

Urtebete behar izan zuten proiektua definitzeko; aktibitateak zehaztu, publiko mota aukeratu...

Azkenik, iaz egin zuten aurkezpen ofiziala eta elkarte modura hasi ziren lanean, Urtxintxaren barruko Eragintza taldearen baliabide eta kontaktuak aprobetxatuz. Orduetik hona eskaintza zabala jarri dute bezeroen esku, zuzenean zein subkontratazioen bidez: mota guztietako abentura kirolak (rafting, puenting, eskalada, kanoak, tirolina, e.a.) eta bestelako ekintzak, esaterako, mendi martxak eta arku jaurtiketa. Gainera, Troka Abenturak antolatutako irteera eta ekitaldiak euskaraz eskaintzen ditu, begiraleak euskaldunak baitira. Ez da gutxi, eskaintza gehienak gaztelera hutsez jasotzera ohituta gauden inguru honetan.

Guztira, 3.000 pertsona baino gehiagok hartu zuen parte Troka Abenturak antolatutako irteeretan. Hau ikusita, urtarrean enpresa independentea sortzea erabaki zuten taldearen arduradunek. Helburu honekin Lan Ekintzako ikastaroetan zihardutenean

eduki zuten Udalak proiektu berrien inguruan antolatzen duen txapelketaren berri, eta lehen saria irabazteak suposatzen duen inbertsioa oso lagungarria gertatu zaie proiektuarekin aurrera jarraitzeko: «Material gehiago erosi, lokal bat alokatu, zergak ordaindu...

Horrelako enpresa bat aurrera ateratzea ez da lan erraza, mobida bat da», azpimarratzen du, barre artean, Javier Fuentesek.

Hala ere, Troka Abenturako kideak ez dira kikiltzen. Orain arte instituzioekin –Bilboko Udala eta Aldundia ikastetxeekin eta talde antolatuekin egin dute lan, baina laster izena indibidualki emateko aukera egongo da. Horrez gain, euren eskaintza negura zabaltzea pentsatuta dute, eskiatzera doazen taldeei ekintza berriak proposatuz: raketak, eskalada, iraupen-eskia...

Hau guztia bideratzeko Troka Abenturak beste talde batzuekin hitzarmenak sinatu ditu Euskal Herriko aterpetxeen erabilera errazteko, besteak beste Eragintza eta Suspergitzarekin. «Jendeak uste du halako aktibitateak egiteko Picos de Europa edota Pirinioetara joan behar dela», azaltzen dute arduradunek, «guk dinamika horrekin apurto nahi dugu, inguruko aterpetxeetan kirol ezberdinak programatuz». Eta badirudi arrakasta izan dutela. Joan den urteko bezero kopurua kontutan izanda, pentsatzekoa da ez dutela inolako arazorik izango aurrera egiteko.

bertin


Lili bat hartu eta hostoz hosto erantzi eta harek zu ere amets eta harek zu ere erantzi eta hostoz hosto hartu lili bat

Joseba Sarrionaindia



Bizikleta , mezuak bidaltzeko garraio berria

Oraintxe Ekomezularitza, bizikletaz banaketak egiten dituen talde bat da eta hiru urte daramatza lanean Bilboko Partikular de Iturribide kalean. Garraio honek eskeintzen duen zerbitzua oso ezaguna ez den arren, merkeagoa da eta gainera kutsadura atmosferiko eta akustikoa ekiditzen du.



Proiektua Iruñean jaiotzen eta Nafarroako hiriburutik hedatuz joan da Bilbo, Gasteiz eta Donostiara iritsi arte. Proiektu honekin, lanpostu duinak sortzea izan dute helburu, baina beti ere ingurugiroa kontutan harturik. Bilbon bost langile daude eta hauek aldi berean sozioak ere badira. Arrazoi hau dela eta, beraien enpresaren jabe sentitzen dira eta honela inplikazio handiagoa lortzen dela diote.

an mezularitza zerbitzuak egiteko. Ez soilik kutsadura atmosferiko eta akustikoagatik, baizik eta trafikoz betetako kaleetatik ibilgailu ixil bezain azkar honek mugitzeko duen gaitasunagatik". Dena den, mezua eraman behar den lekuarekiko distantzia eta paketearen tamainarengatik batzutan ezinezkoa suertatzen da bizikleta erabiltzea, eta horregatik furgoneta eta motorra ere badituzte kasu hauetan erabiltzeko. Kutsadurak presentzia handia duen hiri honetan baliabide egokia izan daiteke, ez baitu kutsatzen ezta zaratarik egiten ere.

«Eko zonaldea» Banaketak bizikletaz egiteko eremu bat dago, Bilboko erdigunetik hasi eta Santutxu, Errekaldeberri, San Inazio, Otxarkoaga, Basurto eta Deustu aurkitzen ditugu «eko zonalde» honetan.

Bezeroak
Oraintxeren bezeroak desberdinak eta anitzak dira; besteak beste, banketxe batzuk, asesoriak, bidai agentziak, fotokopisteriak, Euskaltzaindia, abokatuak, sindikatuak eta publizitate agentziak aurki ditzakegu. Baina bere bezeroen artean Udala edo diputazioak bezalako instituziorik ez egotea salatzen dute, ez baita ulertzekoa hauek kutsadura atmosferiko eta akustikoaren inguruan plazarat-

Bizikletaren abantailak
Garraio honek kaloriak gastatzen ditu gasolinaren ordez eta bere mantenimendua merkeagoa da; horregaitik, motor edo kotxeekin alderatuz gero, eskaintzen dituzten zerbitzuak merkeagoak izaten dira. Oraintxeko ardura-dunaren esanetan "bizikleta ibilgailurik egokiena da hiriaren erdialde-

"Bilbon bost langile daude eta hauek aldi berean sozioak ere badira"

Irune Berro, Joana Etxebarria

Europako zenbait hiritan oso arrunta da jendea bizikleta gainean ikustea, baina Euskal Herriko hirietan oso gutxi dira garraio mota hau erabiltzen dutenak. Oraintxe Ekomezularitza, estatuko "Mienbros de Mensajerías en bicicleta"ren kide da eta erakunde honetan Bartzelona eta Zaragoza dira arrakasta handiena dutenak; hala ere, Almeria, Cordoba Gijon, Mallorca, Madril, Logroño eta Valentzian ere aurkitzen dira.

zen dituzten kanpainak eginik, gero Oraintxe bezalako zerbitzurik ez erabiltzea.

Ekomezularitza honen etorkizuneko proiektua bizikletak gorde-tzeko zerbitzu bat antolatzea izango da. Baina, honetarako nahitaezkoa da lokal zentriko bat aurkitzea, Basurton edo Txurdinagan egongo balitz, adibidez, jende askorentzat oso urruti geldituko bailitzateke. Arrazoi hau dela medio, zailtasun ekonomikoak sortzen dira. Izan ere, Bilbon metro karratua oso garesti dago. Proiektu berritzaile honek abantaila izugarriak ekar lezikizkieke zerbitzu hau erabiltzea erabakitzen dutenei.

Ehun bezero inguruko Ekomezularitza honetako kideak oso pozik daudela azpimarratu dute, lanpostu berri eta duinak sortzeaz gain ingurugiroarekiko jarrera positiboa gauzatzen baitute. Gainera, zerbitzu arrakastatsua omen da, izan ere, bertara hurbildutako bezeroek esperientzia errepikatu egin dute.

GAIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
 Pintura lanak etxaurre eta patioetan
 Ke-irteerak eta Ur-hodiak
 Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefonoa:
 (94) 669 32 79
 Mugikorra:
 908- 45 16 22



Biktimganako Laguntza Zerbitzua / Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!

SAAK

ANGEL
 HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

ARTENIA LOIDI

Santo Rosario, 1 (Santutxu)
 Tlf.: 473 10 65



JON FOLLA

«URTERO JAIK ERABERRITZEAREN ALDEKO APOSTUA EGITEN DUGU»

Jon Folla Santutxuko Jai Batzordeko presidente lanak betetzen ditu. Jai Batzordeko kidea izateaz gain, hamahiru bat urtez Gaztedi dantza taldeko kidea da eta bertan txistua jotzen du. Jai Batzordeko antolamenduz arduratzen da beste hainbat kiderekin batera eta urtero auzoko jaiak eraberritzeko ahaleginean ibiltzen dira.

Arrate Diez

Santutxuko Jai Batzordeko kide izanda, zer esan ahal diguzu aurtengo jaien prestakuntzari buruz? Egitarauari dagokionez, hiruzpalau gauza lotzea besterik ez zaigu gertzen. Arazoa Bilboko Udalarekin dugu, ez baitugu oraindik Santutxuko jaietako espedientea daraman pertsonarekin hitz egitea lortu, beraz, baimenak eman barik daude.

Zein izango da aurtengo musika taldeetan plater printzipala?

Musika arloan berbenak, auzoko taldeak eta Jai Batzordeak prestatzen duen kontzertua dugu, urteroko moduan. Auzoko taldeen txandetan Walhalla eta Radical Bluesek joko dute eta ostiralerako Jai Batzordeak antolatutako kontzertuan Color Humano eta Zea Mays izango dira platerak.

Zer iruditzen zaizkizu Udalak jaietarako ematen dituen diru laguntzak?

Udalaren inguruan gai asko daude salatzeko. Batetik, Santutxuko jaietarako ematen duen diru urria. Bestetik, fidantza moduan eskaintzen digun diru kopuru handia eta, orokorrean Jai batzordeekiko daraman politika ere. Udalak auzo bakoitzeko ematen duen diru laguntza

berrehun mila pezetakoa den bitartean, Santutxun guk jarri behar dugun fidantza zazpiehun milakoa da. Udalaren jarrera ere salatzeko modukoa da, zurekin biltzeko edo ta zure argudioak entzuteko hainbat eragozpen eta prestutasun falta ikusten da.

“Saiatu izan gara urtero dantza berri bat ateratzen jendeak ikus dezan”

Gaztedi taldean txistua jotzen aritzen zara, zenbat denbora daramazu txistua jotzen?

Zazpi urterekin hasi nintzen solfeo ikasten Rafa eta Maria Luisaren etxean eta handik urte batera txistua jotzen ikasi nuen. Geroago, urte batzuetan txistua jotzeari utzi nion, baina auzoko txistulari batzuekin elkartu nintzenean berriro hasi nintzen, ordurako beste giro batean gusturago jotzen nuen. Talde honekin hamahiru bat urte daramatzat.

Hauekin nengoela Gaztedin txistulariak behar zirela komentatu zidaten eta bertara joateko animatu nintzen.

Gaztedirekin batera atzerrira joan al zara jotzera?

Gaztedi dantza taldearekin Portugalera eta Frantziara joan naiz, hortaz aparte, Katalunian ere egon gara eta gero gehien bat Euskal Herri osoan zehar ibili gara. Duela bi urte Errumaniara joan ziren baina ni ez nintzen joan.

Gaztedi dantza taldeak bi urte barru 50. urte beteko du, zelan ospatuko duzue taldearen mende erdi hori?

Badago zenbait proiektu aurrera ateratzeko sortu den lan talde bat baina ni neu ez naiz talde horretako partaidea. Hala ere, betiko anaitasun bazkari edo afaria egiteko asmoa dago, dantza saioa eta atzerriko talderen bat Euskal Herrira ekartzeko asmoa ere hor dago.

Santutxuko jaietarako zer prestatu du Gaztedik?



Gaztedik Santutxuko jaietako egun batean dantzatzen du, eta ekitaldi honetan zenbait dantza ezberdin erakusten du Hockey pistan. Saiatu

izan gara urtero dantza berri bat ateratzen jendeak ikus dezan. Dena dela, ez da lan erreza jendea berri-tuz baitoa talde barruan.

“Lanik zailena hastea izaten da beti, lehenengo larunbata eroetxe bat bihurtzen da eta ematen du dena zintzilik dagoela”

Zenbat jende osatzen du Jai Batzordea?

Jai Batzordea hamahiru taldek osatzen dute eta baita bere kabuz parte hartzen duen beste pertsona batzuek ere. Taldeek beraien interesak defendatzera joaten dira baina horretaz gain, lan egin behar denean denon artean egiten dugu ahal izanez gero, interes pertsonalen gainetik.



Urtean zehar zertan dihardu Jai Batzordeak?


Orain urte batzuk Jai Batzordeak urte osoan zehar biltzea erabaki zuen ekitaldi ezberdinetan parte hartzeko. Orduetik aurrera bildu izan gara urria aldean urtarileko Neguko Jaia antolatzeko, baina Jai Batzordearen egoera ekonomikoa urte urte txarragotzen joan denez Santutxuko jaien ondoren, Neguko Jaia zena ere aldatuz joan da eta aurten koadriletako herri kirolak besterik ez dugu antolatu. Hortik aurrera Jai Batzordearen lana urtean zehar beste taldeei laguntza eskaintzea



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!



GABILTZA
PRENTSA BANAKETA



izan da, behar izanez gero. Honez gain, iaz irailean azoka prestatu genuen eta aurten ere berriro egiteko asmoa dugu.

Lehen Bilboko auzoetako Jai Batzorde orokorra zegoen baina hau galduz joan da, eta momentu honetan ez dago koordinadorarik.

Erraza izaten da Jai Batzordeko presidentearen lana? Zein da hain zuzen?

Nik egiten dudana batzarrak prestatzea besterik ez da, gai ordena pixka bat prestatuz.. Jendearekin hitz egiten dut eta batzarrerako data finkatzen dugu. Lehendakariaren lana tramite legetarako besterik ez da izaten, azken batean, udalaren aurreko ordezkari lan bat da.

Santutxuko jaiak prestatzea urtero zailagoa ala errazagoa izaten da?

Auzoko jaiak prestatzea ez da zaila izaten horrenbeste urtetan prestatzen egon eta gero, dena dela gu urtero saiatzen gara aldatzen. Hau nahiko zaila izaten da ekitaldi asko urtero agertu behar baitira, baina gero eta propaganda hobeagoa eginez eta jai erakargarriagoak eginez aldaketa sortzen da.

Zein izaten da lanik zailena eta errazena?

Lanik zailena hastea izaten da beti, lehenengo larunbata eroteke bat bihurtzen da eta ematen du dena zintzilik dagoela eta larunbat arratsaldea oso estresantea izaten da, baina astelehenera aurrera guk ere jaiekin disfrutatzen dugu. Jaietan egunero bileratxo bat egiten dugu hurrengo egunari gainbegirada bat emateko arazorik egon ez daiten.

GALDERA LABURRAK

Dantzari bat
Urko Gorritxu

Amets bat
Udalak zailtasun gutxiago jartzea

Janari bat
Piperrak bakailaoez beteak

Oporretan nora joango zinateke
Pazifikoko aldeko irla batera

Kolore bat
Morea beltzarekin

Abesti bat
Izarren hautsa

Hiri bat
Belfast

Herri bat
Antzuola

Izen bat
loritz

Musika tresna bat
Alboka

DAYTON
Reagge-festa
taberna

Santutxuko poteo gunean

I N K E S T A

Zein da zuen iritzia selektibitateari buruz?



Susana Berezo Santutxu

Administrazioak dirua lortzea du helburu bakarra; ez du ezagutza neurtzeko balio.



Maria José Otxarkoaga

Selektibitatea oso txarra da ikasleentzat, batzuk ezin dutelako ikasi nahi dutena.



Rosana Piñera Santutxu

Selektibitateari buruz...? Desagertu beharko litzatekela uste dut.



Ernesto Ginea Santutxu

Ez da beharrezkoa, gainera oso gogorra da bi egunetan horrenbeste azterketa egitea.




Vanessa Paredes Santutxu

Nire ustez selektibitatea egitea ez litzateke beharrezkoa izan behar unibertsitateara joateko; gainera, askotan, selektibitatearen ondorioz ezin ditugu egin nahi ditugun ikasketak.



Borja Alonso Begoña

Nire ustez selektibitatea kendu beharko litzateke; selektibitatearekin, bakkari, urtean zehar lortutako notak jeistea lortzen delako.



Montse Teijo Santutxu

Nik ez nuen egin, baina "txorrada" bat dela uste dut, urtean zehar beste azterketa batzuk egiten dituguzalako.




MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Laura Lafont: "Ez neukan aurkezteko gogo askorik"

Laura 22 urteko Santutxutarra da. Orain dela urte batzuk Unzalu estudioan hasi zen margozten eta Haur Hezkuntzako ikasketak hasi eta gero, margozteari bere kabuz ekin zion. Aurten, Santutxuko jaietako kartel lehiaketan parte hartzen dueneko hirugarren aldia da eta esaerari kasu eginez hirugarrenean irabaztea lortu du.



Kartela egiteko, atsedanak at, bost ordu inguru behar izan zituen.

Berton: Zer dela eta aurkeztu zenuen kartela?

Laura: Jai Batzordean zegoen jendea ezagutzen nuen eta aurkezteko esan zidaten, jende asko animatzen zela eta ni ere animatzeko... Baina nik ez neukan gogo askorik, orain dela denbora pilo bat ez nuela margozten; pasa den urtetik hain zuzen ere. Baina azkenean animatu egin ninduten, margozteko orria eta margoak erosi zizkidaten eta animatu egin nintzen.

B.: Beste saririk irabazi al duzu?

L.: Txikitan "El Corte Ingles"-eko lehiaketa batetara aurkeztu nintzen eta zerbait tokatu zitzaidan,

baina bestela ez dut ezer irabazi.

B.: Konta eiguzu nolakoa den kartela.

L.: Kartela nahiko arraroa da. Apainketa irazkia deitzen zaion horien antzekoa da. Kolore planuak ditu, nahiko kolore biziak eta forma geometrikoak. Oleo eta errotulagailuarekin egina dago. Gehienbat Santutxuko edifizio altu batzuk agertzen dira eta erdian Sangutxu arraro bat dago; baina kartela begiratzerakoan esan zidaten ez zutela topatzen nahiko arraro jarrita zegoelako. Gero, Santutxu aldapan dagoenez, aldapan dauden monigote batzuk ere baditu. Hizkiak, aldizkarien errekorrekin egin nituen mosaiko antzeko bat eratuz.

B.: Santutxuko jaiak, zer nolako jaiak dira zuretzat?

L.: Nahiz eta hiri batetan izan, nahiko herrikoiak dira. Gutxi-gora-behera guztiok elkar ezagutzen dugu, zeren eta nahiz eta jendea beste auzoetatik etorri ezaguna da ere. Niri, pilo bat gustatzen zaizkit etxean bezala egoten naizelako.

B.: Saiatu al zara kartelean zuk sentitutakoa islatzen?

L.: Bai, pixka bat bai. Ideia ezberdinak hartu ditut: Santutxu aldapan dagoela, jaietan giro ona dagoela islatzeko kolore biziak erabili ditut...

B.: Datorren urtean aurkezteko asmotan al zaude?

L.: Ez dakit zeren gero lotsa handia ematen dit jendeak nire kartela ikustea. Nik ez nuen hau espero eta beraz, lotsa ematen dit nire kartela kaletik ikusteak. Gainera, saria jasotzera joan behar naizela esan didate eta nik ez dut nahi. Gero, mobida hau (Bertonen elkarriketa)...

Negozio berriak Santutxun

Bederatzi negozio txiki martxan hasi dira Santutxun jadanik. Enpresa berri hauen gunea Cocherito de Bilbao kaleko 20an kokatua dago. Gune hau, Lan Ekin-tzak Bilbon irekitzen duen bigarrena da, helburua hasten diren enpresari berriei laguntza eskaintzea izanik. Sustatzaileek, lokalak hiru urtez erabili ahal izango dituzte. Instalakuntzek bi solairu eta 25 eta 49 metro karratu bitarteko hamabi modulo dituzte, zeinetan enpresa bakoitzak bere egoitza duen. Zentruak, urte bukaera baino lehen martxan jarriko diren hiru proiektu gehiagorentzako lekunea du. Honetaz gain, bilera gela bat eta erabilpen ezberdinetarako beste gela bat du, zeinetan topaketak eta formakuntza ekintzak burutuko diren.

Santutxuko enpresaldean kokatutako negozioek, eremu ezberdinetan banatutako 21 lanpostu sortu dituzte: hiru aholkularitza enpresa (osasuna, enpresen zuzendaritza eta zerbitzu integralekoak), bideo korporatibo eta industrialak ekoizten dituzten ikusentzutezko zerbitzuen konpainia bi, bideo digitaleko ekoiztetxe bat, topografia tailer bat, kultura eta joerei buruzko aldizkari bat eta Bilbotik gidaturiko bisitak egiteko zerbitzu bat.

Zentruaren eraberritzeak eta egokitutako ekipamenduak 35 milioitako inbertsioa suposatu du. Kantitate hau, udalak eta Garapen Erregionalerako Europar Fondoak jarri dute.

Boluetako enpresariak rastroaren toki aldaketa eskatzen dute

Ingurunean dauden 26 enpresarietatik 18 biltzen dituen Ibaialde elkarteak, udal erantzuleen aurka salaketa bat jarri du. Honetan, merkatu txikiaren kokapenak salmenta ibiltariaren ordenantza betetzen ez duela eta beren negozioak larriki kaltetzen dituela salatzen du. Enpresariak esaten dutenez, salmenta postuek Boluetako Santa Ana poligonoaren sarrerak blokeatzen dituzte eta euren lan aktibitatea gelditzen dute. Udalek erantzun dutenez, publikoa den zoru batean bi erabilera ezberdin armonizatu beharra dago. Euskadiko merkataritza ibiltarien elkarte Udalaren alde jarri da Santa Anako enpresariak irekitako prozesu judizialean. Gogoratu beharra dago 1995ean ere arazoak izan zirela merkatu txiki honekin. Garai hartan saltzaileek kexak jarri zituzten Uribitartetik Boluetara aldatu behar izan zutelako. Orain, enpresariak dira igandero 15.000 Bilbotar erakartzen dituen merkatu txiki bat nahi ez dutenak.

Mina del Morroko etxebizitzaren %50 a babes ofizialekoa izango da

Ondorengo urteetan Bilbon 5.000 etxebizitza berri eraikiko dira. Horietatik %65 Administrazioak ezartzen dituen formuletariako batzuetara egokituak egongo dira.

Eusko Jaurlaritzak, neurri hau kolektibo behartsuenei erraztasunak emateko, parke inmobiliarioaren kontrola indartzeko eta gazteei etxebizitza bat izatera iristeko bidea errazteko hartu du. Mina del Morron eraikiko diren 1.000 etxebizitzetatik %50 babes ofizialekoa izango da. Hau da, beren salmenta Eusko Jaurlaritzak ezarritako prezio batzuen arabera egiten da eta eskuratzeko eskubidea izateko errenta maila zehatz batzuk hartzen dira kontutan (diru sarreraren maila honako baremoan sartzea: 0,65 eta 2,5 tartean, hau guztia lanbidearteko gutxieneko soldatagatik biderkaturik). Hauekin batera Begoñazpi ikastolaren ondoan 300 etxebizitza eraikiko dira.

Baserritik
etxerainoko
OKELA ZERBITZUA
Eskaerak egiteko:
- Telefonoa eta Faxa: 94 433 48 02
- Orduetia: 10:00etatik 13:00etara eta
16:00etatik 19:00etara
E.H.N.E.

DARDARA
TABERNA
S.M. Ascension plazan
Santutxu

COPISTERIA
Carri
ZABALBIDE, 62
METRO SANTUTXU KARMELO IRTERA
TFNO: 94 432 02 53 - FAX: 94 432 02 54

Udalak bidegorrien sarea diseinatu du

Bilboko udaleko ingurugiro sailak, Bilbon zehar hedatuko diren bidegorrien mapa bat diseinatu du. Orotara, ibilbide guztia 39 kilometrokoa izango da. Ibilbide osoa bi saretan banatua dago: batetik, hiriaren erdigunea eta auzoak lotuko dituen sare printzipala eta bestetik, auzoetan zehar garatuko den sarea. Projektuaren lehenengo faseak, auzo guztiak hiriaren erdigunearekin lotuko ditu. Lehenengoko fasea, hemendik lau urtera garatuko da eta bidegorrien 27 kilometro egokiaraziko ditu. Fase honek, 400 milioi inguruko aurrekontua izango du. Behin sare printzipala sendotuta egonik auzoetako sarea hedatuko da. Funtzionamenduan hasiko den lehenengo ibilbidea San Inazio eta Errekalderen artekoa izango da (7km.). Mahatsorrian ere, bizikletaz ibiltzeko aukera izango dugu. Gauzak honela, Atxuri-Otxarkoaga eta Begoña-Txurdinaga ibilbideak egin ahal izango dira. Lehenengoko ibilbideak, 3,7 kilometro izango ditu eta Otxarkoaga, Txurdinaga eta Santutxu Erribera eta Alde Zaharrekin lotuko ditu. Bigarrenak, lehenengoak beste kilometro izango ditu eta Txurdinaga eta Begoña Arenalarekin lotuko ditu. Aipatzeko da, ibilbide honek igogailu



Bizikletak gero eta garrantzia handiagoa hartuko du Bilbon.

eta metro bidezko zatiak izango dituela, bidegorriak garraio publikoarekin elkarlotuz. Honetaz guztiaz gainera, projektuaren barnean txirri-duentzako aparkalekuak egokituko dira ikastetxe, institutu, merkatu eta parkeetan.

Mahatserriko isurkinak ez dira Bilboko itsasadarrera joango

Ur Partzuergoak Nerbioi erdi aldeko eskualderako erakitako hodiaren Arenal-Boluetako tartea urte bukaerarako martxan hasiko da. Honekin, Bilboko itsadarrak 17.159 metro kubiko ur beltz gutxiago jasoko ditu egunero. Kondukzioak hiru metro eta erdiko diametroa du eta bi kilometro eta erdiko luzera. Tunela, Ernesto Erreka enparantzan hasten da eta Santa Anako poligonoraino luzatzen da. Hemen, ingurune horretara egokitutako 778 metrotako bigarren galeria batekin egiten du topo.

Kondukzioak, Sestaon dagoen Galindoko araztegiara eramango ditu Santutxu, Bolueta, Txurdinaga eta Otxarkoagako isurkinak. Orain arte, ur beltz hauek Boluetako presa eta Abusu auzoaren bitartean zegoen Ibaizabalen tartean bota izan dira.

Obrek, 2.326 milioiko inbertsioa behar izan dute eta instalakuntzak etorkizunean 4.000 litro ur segunduko bideratzeko prestatuak daude.

Sarbide hobeak Bolueta eta Arabellan

Bilboko Udaleko Herrilan eta Zerbitzu saila, Boluetako San Joaquin eta Arabella auzoetarako Zabalbideko sarrera hobetzen ari da. Orain arte baino errazagoko sarbidea izango dute. San Joaquinen egindako lanetan 130 milioi pezeta inbertitu dituzte eta orain Miraflores errepidearen ondoan dagoen auzo horretara Pintor Losada eta Sagarminaga kaleetatik erraz hel daiteke. Gainera, kaleetan zenbait hobekuntza egin dituzte: argindarreko hariak eta posteak kendu dituzte eta gasa sartu dute.



Parke berriak Solokoetxeri beste itxura bat emango dio.

Solokoetxek parke berria izango du

Solokoetxe koordinakundearen hamar urtetako borrokaren ondorioz, auzo honek Maternitatearen edifizioko lorategian parkea egitea lortu du. Udalak, 70 milioiko kostua duten obrak laster kontratatuko ditu. Uda aurretik hastea eta udazkenerako amaituta egotea espero da. Parke berriak 3.000 metro karratu beteko ditu.

Hainbat aldaketaren ostean, behin-betiko planoetan jardinen hobekuntza, hormaren ingurua konpontzea, umeen jolasentzako alde bat jartzea eta argien instalakuntza egitea aurreikusten da. Honekin batera, zementuzko ping-pong mahai bat jarriko dute eta Garamendiko patioetara eramango duen bide bat ere izango du (Solokoetxe Santutxurekin hobe komunikatzeko asmoz). Aipatu beharra dago era berean, azalera horren zati bat Osakidetza Osasun Zentruko langilegoaren aparkalekuentzako erabiliko dela. Bestalde, kirol pista bat eraikitzearen proiektua bidean geratu da.

Txurdinagan 45 familia berraterperatuko dituzte

Eusko Jaurlaritzak, Bilboko Udalari Txurdinagako 45 etxebizitza laga dizkio alokairu pean 45 familia aterperatuko dituzte. Etxebizitza hauetan sartu diren familiak, ekintza urbanistikoaren ondorioz beren etxea utzi behar izan dutenak dira. Elorrieta, Errekaldeberri eta Enekuritik etortitakoak hain zuzen ere. Familia hauek, hilerio 20.000 pezeta ordaindu beharko dute.

Txurdinagako etxebizitzak Zuatzu kaleko hirugarren zenbakian kokaturik daude eta 70-80 metro karratu, garajea eta trastelekua dituzte.

Lagatze hau, etxebizitza departamenduak egingo dituen azkenetarikoa izango da zeren eta Eusko Jaurlaritzak alokairu sozialak zuzenenan eramango ditu oraindik aurrera, udalen partehartzerik gabe.



MALATXAREN ERAKUSKETA SANTUTXUN

Euskal Herriaren desmilitarizazioa helburu duen Malatxa kolektiboak, "Alde Hemendik" kanpainaren barruan erakusketa bat egin du Santutxuko Herriko Tabernan. Malatxaren ustez Goardia Zibilak urteetan zehar Euskal Herrian ezarri duen okupazio militarari amaiera emateko ordua iritsi da, euskal gizarteak etorkizun desmilitarizatu baten aldeko apostua egiten baitu. Goardia Zibilaren presentziak berekin ekarri dituen errepide kontrolak, kale, mendi eta herrien okupazioak, atxiloketak eta abar amaitzeko ordua iritsi da Malatxaren iritziz; horregatik, «Alde Hemendik» leloa. Santutxun eginiko erakusketan, Guardia Zibilaren alderik beltzenak ikustarazi nahi dira eta horretarako indar polizial honekin lotzen dituzten hainbat elementu imitatzen dira: droga, armez hortzetaraino josirik daudenen argazkiak, botilak, trikornioak, uniformeak, kontrolen argazkiak, bozala, odolez zikinduriko aldizkaria, ABC egunkaria, aldizkari pornografikoa... hori guztia, maletetan sartuta.

hartu bertonean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerrean, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatik.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea:Zenbakia: Solairua:
 Herria:Herrialdea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura



ERRIKAKA

ZURBARANBARRIKO JAIAK'99



☞ Itxaso Perez


 Iñigo Azkona

Euskal Herrian hainbeste maite dugun ohiturari eutsiz jaiei hasiera ematen zien txupinazoa berandu bota zen, mota guztietako ekitaldiz beteta zegoan aste oso bati hasiera emanez. Lehenengo ekitaldikoek "virus" oportunistak batek kale egitea eragin zuen, baina festa gogoa ez zen moteldu. Hasiera ederra, benetan! Gaua laister iritsi eta dantzaldiaren lehenengo notekin benetako festa hasi zen. Hori bai, gogorra izan omen zen, zeren igande goizeko krosera oso lagun gutxi azaldu zen. Dena dela, bakar batek ez zuen ibilbide osoa osotu. Xake txapelketa larunbatekoaren bidean joango zela zirudien, baina Karpov eta Kasparov-ek ez zuten huts egin nahi.



Arratsalde hurrengo urterako aratusteak prestatzen ibili ziren gaztetxoek, maskara ederrak eginaz. Horrela, asteburua igaro eta astelehenean ekimen kulturaleri tartea egin zitzaion, Chiapasetik Himalayaldera bide luzean joanez, baina auzoan etenalditxo bat jubilatuta eta umeekin eginik.

Brigadista batek Chiapaseko egoera larriaren inguruko berri eman zigun, solasaldi interesgarria suertatuz. Kasik egun guztietan haur eta gazteen-tzako tailerrak eta jolasak izan dira, etxetik agertu ez diren arren, gurasoak pozik, seguru... Astearte horrela joan zen, eta aste erdian goi-goraino eramantuzten iaz Santopanth mendian ibili ziren Begoña eta Santutxuko gazte batzuek, handik eka-ritako irudiak eta kontuez zahar eta gazteak animatuz eta liluratuta utziaz. Liruratzekoa era berean Emakumearen Sustapenerako Guneko kideek egin zuten eskulanen erakusketa ere, urtetik urtera hobera egiten duena.



Auzoko nagusiak ondo antolatuta daude, eta irteera eta hainbat gauza egiten dituzte urtean zehar, baina oraingoan beraiei zuzendutako animazioa eskaini zitzaion auzoko eskoletan. Ondo pasatu eta ondo jan ere ostean, kolesterolari muzin eginez! Umeak, zelan ez, jolasten, beti jolasten... Ostirala hurbildu eta asteburuko doinua somatu jada. Geldialdia edo greba zela eta jende mordo bat zebilen arratsaldeko lehenengo orduetatik plaza ingurunekeo tabernetan, ekitaldiak gabeko azkenengo

orduetan hasiko ez baziren ere. Aurten eskaintza bikoitza egin genuen, eta plazan egiten denaz gain, jaia auzoko beste lekuetara zabaltzea gura zen. Beraz, ipinita zegoen beste eskenatokian Retamal folklore talde txiletarra aritu zen, eta plazan, gaupasari hasiera emango zion berbena taldeak jo zuen. Aurreko asteburuan jende dexente bazegoen igande gaueko ordu txikietan, launbatean markak hautsi ziren.



Parranda ederra egin bai, baina gero, goizean koadrilen artekoan aritzeko indar gutxi erakutsi zuten aritutakoek. Eta ez zen gutxiagorako! Saltsa ederrean gau osoan murgildu ostean...

Indarra bazeukatenak, betikoak ziren, umeak, norbait harrapatu nahian ginkanan bete behar zituzten probak egin ahal izateko: dantzatu, jai batzordeko norbait harrapatu. Hori bai apostua! Auskalo non ... Beharbada sardinak jaten. Arratsaldean herri kirolen erakustaldia Oiartzun-Astigarraga-Igeltotik etorritako taldearen eskutik. Oso polita, eurak imitatzen saiatu ziren pare batentzat izan ezik. Txanpain botilak zain dauzkate oraindik...

Eta gauzez, kontzertua. Batzuen ustez, zarata larregi. Besteen aburuz, primeran egon zen, soinuak behin edo kale egin bazuen ere. Plaza beteta. Baita «igelatxoan» zegoen berbena lekua ere. Dantza lehiaketa egin zen, partehartzaile oso gutxiekin; jendea lotsati samar agian, gauza zen lehiaketaren saria Abadinora joan zela. Ia holan ikasten dugun. Egitarauaz kanpo zegoen arren, Inma eta Pato auzoko preso biak gogoratzeko ekitaldi eta manifestaldi jendetsua burutu zen.

Biharamunaz jota eta hala ere bazkaria prestatu behar, jan gura bada jakina. Paella txapelketa zegoen eta aurten lehenengoa baietz eskuratu!. Ez lehenengoa, ezta bigarrena ere, baina arroza primeran, edota auzo-



ko apaizak dinoenez, kristorena!

Kafea, kopa eta karaokea. Artista itzelak dauzkagu hemen eta gu ohartu barik! Modako abestiez gain, mozorroak egiteko irudimen handia erakutsi zuten andra koadrila batek. Urtero huts egin barik hor dauzkagu, eta sari guztiak eroan dituzte dagoeneko. Horren txarto ez zuten/genuen abestu, euririk ez zuen egin eta. Eskerrak! Gero nahikotxo busti ginen danok suhiltzaileen bitsaz, uraz, kalimotxoz, ... Sariak banatuta, amaierako txupina bota, ...baina jaia ez zen hor amaitu, ez. Eskenatokia desmontau, ez dakit zer jaso, zauritutako bat, haur bat galduta bitsan barruan,.... Datorren urteko jaietan pentsatzeko astirik ez! Baina etorriko dira. Eskerriki asko parte hartu duzuen danori!

TXURDINAGA ESKOLA JAIETAN

Ekainaren 11an, ohi den legez, ikasturte amaierako jai handia ospatu zen Txurdinaga eskolan. Jai giro ezin hobean eskola osatzen duten guztion parte hartzearekin, zuzendaritza, irakasle, guraso eta, batez ere, ikasleon parte hartzearekin, alegia, hainbat ekitalde burutu ziren. Bi helbururi eutsi nahi zioten; Alde batetik, arratsaldea jai giroan eta lagunartean ematea eta, bestetik, euskarri bultzada ematea.

Jai eguna goiz goizean hasi zen, hamarretan Txan Handia magoak bere ekitaldia hasi baitzuen. Bere jatorrasun eta umore onaz eskolako jolastokian bildu ziren irakasle eta ikasle guztiok txoratu zituen. Ordu betez malabareak, magia eta trukoak egin zituen mago handiak, umeak arranpaloak bezala aho zabalik begira zituela.

Arratsaldean jaiari hasera emateko 6. mailako gaztetxoei agurra eman zitzaienten, eskolan igaro dituzten urteen oroigarri pin eder bat oparitu zitzaielarik. Ondoren neska-mutilek hartu zuten jaiaren gidaritza,



Gaztelu puzgarria ez ziren falta izan Txurdinaga eskolako jaietan

bertsoei, kantei, dantzei, karaokeari eta abarrei ekin. Jaiak aurrera segitu zuen 5-12 urteko umeek egindako bertoko dantzen agerraldiarekin, txistu saioarekin, karate erakustaldiarekin eta xake jokoarekin. Hau guztia jolastokian zen bitartean jantokian 4., 5. eta 6. mailako ikasleek ondutako bertso saioak txalo zaparrada hartu zuen. Eskola osoan erakuskariak eta bideo

proiekzioak egon ziren ikusgai arratsalde osoan zehar.

Gaztelu puzgarriek baita makilaje, txapa eta eskulatan tailerrek ere txiki zein handien onespina jaso zuten.

Jai bete-betean ekitaldirik esperatuena heldu zen, 6,30etan Kiki, Koko, Moko eta Flax pailasoak hasi baitziren euren kantak, dantzak... egiten eta, jakina, barre eta algara sortarazten. Azkenik, jaiari amaiera emateko eskolako gurasoak bildu ziren jantokian lagun artean ordu txikiak arte iraun zuen afarian.

Laburbilduz, parte hartze handiko jai ospatu zuten Txurdinaga eskolan euskara eta umore ona egun horretako ikur bihurtuz. Zorionak eta aurrera!



Kiki, Koko, Moko eta Flaxek umeak txoratu zituzten

INMOBILIARIA
Gelaya
 HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...
 Iturriaga, 92
 Tfnoa. 94 473 07 78
 48004 SANTUTXU - Bilbo

BASTERTXU

TABERNA
 Ricardo Bastida plaza

ekilore
 Iturriaga, 92 Santutxu

Bikotz
 ARLOPAK ★
 ZILARRA ☾
 OPARIAK ★
 Dan Arsuaga SANTUTXU
 Tel & Fax 473 42 88 • 48004 BILBO

Otoio
Mendi
 Sta. Klara

KIKU

ESKOLA-KIROL HEZIGARRIRANTZ

Bizkaiko ikastola elkarteak antolatutako kirol ekitaldiak amaitu dira Maiatzaren 23an Mungiako Larra-mendi ikastolan futbito finalak burutze-arekin bat. Urretxin-dorra, Abusu, Bego-ñazpi eta Kirikiño izan dira Bilboren lekukoa eraman dutenak. Azken biak, ahaztu gabe, mahat-serritarrak.

Ikasturte honetako kirol jarduera bukatu dela eta, Mikel Azanzarekin, BIEko kirol arduradunarekin, alegia, solasaldia izan genuen aurrera daramaten kirol-hezkuntzaren proiektua zertan dartzan azaltzeko.

Mikelek azaldu zizun bezala gaur egun burutzen den eskola-kirola ez dago eredu hezitzaile baten oinarrituta, erakunde batzuetatik ere ez da baldintza egokirik jartzen. Gainera, honekin zerikusirik duten beste alderdiek ere ez dute modu horretan ulertzen (gurasoek, monitoreek, ordezkariak...).

Ikastolen elkar-tearen arduradunaren ustez, gaur egun eskola-kirolak bizi duen egoera kezagarria da. Aipa daitezkeen ezaugarrien artean hauexek nabarmentzen dira: Lehiakortasun itsua, ume askoren bazterketa, sexismoa, monitoren prestakuntza pedagogiko urria, espezializazio goiztiarra, e. a. Eredu honek, edozein aldetatik ikusita, ez du balio hezkuntza tresna bezala.



Begoñazpiko umeak futbitoko garaikurra jasotzen Mikel Azanzaren eskutik

Behar-beharrezkoa ikusten dute ikastoletan beste ikusmolde bat azaltzea planteamendu eta ikuspegi ezberdinak dituen. Horretarako hamar-kada honetan ikastolak lan eskerga egiten ari dira, haseratik markatutako bi helburuetatik desbideratu gabe, hau da, heziketa eta euskara.

Ikastolen proiektua gauzatzeko 10 helburu orokor (Hamar aginduak) proposatzen dituzte eta gaur egun haizekontra ari direla onartu arren beren ahaleginak fruituak ematen hasi direla ere garbi ikusten dute. Horretarako hiru kiroletan aritzen dira; Taldeko kirolean (futbito), bertokoa (lokotsak eta sokatira) eta bakarkakoan (kros-

sa). Horrekin batera formakuntzan eta aholkularitzan ere indarra egiten ari dira. Gizakiak asmatutako edozein tresna bezala, kirola ere intentzio txarrekin ala onekin erabil daiteke. Ondo erabiliak, haurren heziketa orokorrean tresna hezitzaile bihurtu daiteke. Txarto erabiliak, ordea, bultzatu ditzakeen jarrerak onartezinak izango liriteke ikuspegi pedagogikotik begiratuta. Kirolak ez du haurra "aldatuko", ez du haurra hezituko, bere ondolan etengabe ari diren agenteak baizik.

KARMELO IKASTOLAKO PILOTARI TALDEA

Esperantza kaleko frontoian antolatutako eskola txapelketa dela eta Karmelo ikastolako pilotari taldearen ardura daramaten Agustin eta Asier, aita-semeengana jo dugu euren lanaz zerbait jakin nahian.

NOIZ HASI ZEN PILOTA KARMELO IKASTOLAN?

Duela hainbat urte Juanjo Basterraren ekimenez zerbait egin nahian ahalegindu zen ikastola baina, azkenean, ez zen gauzatu. Gerorako, orain 8 urte, Matxalen irakasleak neska-mutikoak animatzen hasi zen. Batzuek gogoz heldu zioten proposamenari eta ordudunik, gora behera batzuk egonda ere, taldea horretan ari da. 4 urte izango dira entrenatzeko ardura geuk hartu genuela eta gaur egun esan daiteke taldea sendo eta gogotsu ari dela.

ZENBAT NESKA MUTIL ETA ZEIN ADINETAKOAK DIRA?

Aurten 13 bat mutil dabilta entrenatzen nahiz eta horretarako zailtasunak eduki. Adina dela eta 8 urtetik 16 arte.

ZEIN DIRA AIPATU DITUZUN ENTRENATZEKO ZAILTASUNAK?

Ikastolan daukagun frontoia txikia da, hastapenak egiteko ondo dago baina umeak hobetuz doazen neurrian beste frontoi handiago bat behar da. Gainera aurtengoa bezalako negu euritsu baten gauza gutxi egin daiteke. Santutxun beste frontoi batzuk ere badaude baina pribatuak, estaligabeak, txikiak edo erdi hondatuta. (Kar-

meloko Sorgintzulokoa kasu.)

Santutxun frontoi dezente bat egongo balitz pilotak aurrerakada handia hartuko luke, ezin dugu imaginatu zenbat pilotazale dagoen hemen.

ORAIN ARTE NOLA KONPONDU ZARETE ENTRENATZEKO?

Aurten Esperantzako frontoira joateko aukera izan dugu astean birritan baina hor beste problema batzuk daude, ume pila ibiltzen da entrenatzen eta inor ez da gustura ibiltzen, umeek ere nabaritzen dute hori. Gainera datorren urterako pilotari talde bat, ekipo bat sortu nahi dute eta horretan sartzea edo kanpora joatea gerta liteke.

BENETAN ZAIL DUZUE BERAZ?

Bai, oso zaila eta pena handia da, gure-gurea den pilotaren egoera horretan ikustea.

ETA DIRU ALDETIK?

Foru aldundiak duela 4 urte kendu zuen subentzioa eta handik aurrera pilota federazioak bere gain hartzen du hau, neurri baten. Baina gurasoak beraiek dira dirua ipintzen dutenak.

ZER ASMO DUZUE ETORKIZUNERAKO?

Gure asmoa da mutilak dauden artean segitzekoa. Gainera hemendik batzuk nahiko ondo ari dira. Gaur egun gurekin egon ez arren, Mikel Arrieta, aurtengo kadete txapeladuna, hemen sortua da, orain Lemoako taldearekin ibiltzen bada ere.



Karmelo ikastolako Pello, Xabier, Josu, Mikel, Urtzi, Julen eta Ibon

OTXARKOAGAKO EUSKAL TXOKOA

Gure auzoan ekinean

*Ikastaroak, irteerak,
kultur ekitaldiak...eta
beste hainbat gauza
antolatzen ditugu*

Zure
publizitatea hemen

9 4 4 7 3 5 4 4 8



⇒ Aitziber Laskibar

R Nerea Ribas

Santutxutik datorren artista

Nerea Ribas, 26 urte dituen gazte santutxuarra da. Arte Ederrak ikasi du Leioan eta momentu honetan argazkigintza-irakaslea izateaz gain, bere kabuz ari da lanean, esperimentatzen. Artistei buruz hitz egiten duenean 3. pertsonan egiten duen arren, kultur espresibideak barrubarrutik sentitzen dituela nabari da arteari buruz esaten duen hitz bakoitzean, eta artistak sutsuki defendatzen ditu.

Zer egin duzu orain arte, eta zertan zabilta egun?

Ikus-entzutekoak ikasi ditut, eta betidanik argazkigintza izan dut gustuko. Dena argazkigintzarekin nahastu nahi dut. Gehien bat, argazkigintza pinturarekin nahastu nahian ibili naiz. Orain adibidez, Bilbon zehar argazki kamararekin ateratzen naiz, eta ikusten ditudan hainbat imajina hartzen ditut. Horiek errebelatzen ditut, eta gero ikusten dut nola batu eta nola esperimentatu pinturarekin.

Nola egiten da hori?

Modu ezberdinak daude. Nik egindako lanei buruz hitz eginez, adibidez duela bi urte Euskal Herrian Euskaraz taldeak, euskarari buruz erakusketa bat antolatuta nahi zutela eta, lan bat egiteko eskatu zidan. Nire lanarekin jarraitu nahian, diapositibekin ibili nintzen; diapositibak atera, eta ondoren, diapositibak ohialean proiektatzen nituen bitartean, ohiala margotu egiten nuen projektatutako irudiaren gainean. Momentu horretan irudi horrek esaten eta sentiarazten zida-

na margotzen nuen oihalean. Horren ostean, diapositiba eta pintura nahastuta zegoen horri, berriz ere argazki bat ateratzen nion. Azken emaitza, argazki hori izango zen.

Beste kasu batzuetan argazkia soilik landu dut, baina ez da izaten argazki bat egitea eta listo. Ideia bat hartu eta ondo garatu behar da. Batzutan, hasieran pentsatuta zenuen bezala geratzen da, baina beste batzutan, lan prozesuak zure haserako lana aldatu egiten du.

Beste modu bat izan daiteke, argazkia pinturan sartzea. Hori egiteko, asko jolasten dut fotokopiekin. Argazkiak ateratzen ditut, gero fotokopiatu egiten ditut, eta gero, prozesu berezi baten bitartez, horiek oihaletara, egurretarara, kristaletara, eskulturetara edo beste material batera pasatzen ditut. Hori da gaur egun egiten ari naizen prozesua. Ahalegindu argazkia beste alor batzuetan inplikatzeko. Imajin horiek nire modura ikusten ditut, eta horiekin sentitzen dudana azpimarratzen saiatzen naiz, prozesu

horien bitartez.

Jende guztiak ikusten ditu gero irudi horiek zure moduan?

Ziurrenik, ez. Ni nahiko figuratiboa izaten naiz, nahiz eta nire imajinak ez izan oso errealak, baina errealitatearekin zerikusia duten gauzak agertzen dira. Beraz, jendeak ikusten dituenean ez da galtzen. Baina lan baten barruan beti dago norberaren sentimendua eta hori norbaitek ikusterakoan, ez du hatzematen hasera batean.

Irudi errazak ikusi eta berehala ulertzea ohituta gaude?

Bai. Horregatik, nik askotan esaldiekin ere jolasten dut. Nire lanetan esaldiak sartzen ditut, jendearengana ondo heltzea nahi dudalako. Adibidez, pintura eta argazkia nahastuz egin nuen beste lan bat; «Paristik natorren?» deitzen zen eta Kafe Antzokian egon zen Sortu Ta Sortuzek Santutxuko gazte sortzaileekin egindako erakusketa batean. Bertan, Euskal Herrian zer nolako mugimendua dagoen azaldu nahi nuen. Niri txikitan ikastolan irakatsi zidaten "Paristik natorren artista

bat naiz ni", eta ni ez naiz Pariskoa, ni Euskal Herrikoa naiz. Titulua da lan horri zentzu handiena ematen diona. "Paristik natorren?" esaldiak zeozer pentsarazten digu.

Hemen, ze mugimendu dago artearen inguruan?

Santutxu mailan gazte sortzaile asko dago, baina gure artean ez dugu loturarik, eta hori oso garrantzitsua da, nik lan asko egin dezakedalako, baina beste sortzaileekin komunikatzen ez naizen heinean, besteek egiten dutenaz ikasteko aukera galtzen dudalako. Ikusten dut, alor bakoitzean ibiltzen garenok noizean behin bildu eta egiten duguna esposatzeko beharra, elkarrekin gure lanetatik ikasteko. Sorgintxulon badago talde bat, gela bat tailer bezala prestatu dutenak. Horiek arazo bera zuten. Bakoitzak bere etxean egiten zuen lan, eta nahi zuten leku batean bildu, elkarrekin lan egin eta besteen lanetaz ikasteko. Sorgintxulok aukera hori eman die, baina egia da falta direla leku eta infrastruktura gehiago lana aurrera eramateko.

Sortu Ta Sortuz saiatu zen nolabait, bere aldetik dabilen jende hori biltzen?

Bai. Horregatik egin ziren erakusketa haiek eta ezagutu gara piskatxo bat gehiago inguruan gabiltzanok. Baina ez dakit zergatik, lan hori utzi egin da, eta somatu egiten da. Kafe Antzokiko erakusketa egin genuenean adibidez, ikusten duzu jendeari zure lana gustatzen zaiola. Horrek indarra ematen dizu lan gehiago egiteko. Gainera gaur egun, oso ezaguna ez bazara, Sortu Ta Sortuz bezalako talde bat ez bada, inork ez dizu deitzen erakusketa bat egiteko.

Artistak beste mundu batean bizi diren ospea dute. Bere lanean gehiegi murgiltzen direlako da?

Nik ez nuke esango beste mundu batean bizi direnik. Uste dut artista gehienak, eta are gehiago Euskal Herrian, betidanik oso murgilduta egon direla Euskal Herriaren bizitzan. Gertatzen dena da, gauzak ikusteko eta adierazteko modu bere-

zia dutela. Askotan pentsatzen da arraroak direla, egiten dutena ez dugulako ulertzen, baina tartean sentsibilitate asko dagoelako da. Beraiek ikusten dutena adierazteko erabiltzen duten modua oso ezberdina da. Guk hitza erabitzen dugu, gure sentimenduak kontatu ditzakegu...; hitza azken finean, oso bide erraza da besteei gauzak adierazteko, baina pintura, argazkia edo eskulturarekin hasten garenean, gehiago kostatzen da sentitzen duzuna isladatzea, eta askotan urrun daudela iruditzen zaigu.

Kultura azpibalaratuta dago?



Nerea Ribasen lan bat

Nik uste dut baietz. Oso modu okerrean baloratzen da instituzioetan etabar, gehien baloratzen dena ezaguna izatea delako, eta dirua bitartean dagoelako. Dirua bitartean dagoenean, gauza onik ez dago. Uste dut instituzioek oraindik zerbait gehiago egin behar dutela.

Artelanak egiteko diru asko behar izaten da, eta ez du dirurik ematen. Nola moldatzen zarete?

Nik adibidez, orain argazkigintza klaseak ematen ditut institutuan, ume batzuk zaintzen ditut, argazkiren bat egiteko eskatzen badidate zertxobait kobratzen dut... diru

horrekin materiala ordaintzeko dirua ateratzen dut. Baina gertatzen zaidana da diru hori ateratzeko beste gauzetan lan egin behar dudanez, gero ez dudala denbora askorik artelanetan aritzeko. Nire ustez gazte sortzaileentzat laguntza gehiago egon beharko luke, bere lana egin ahal izateko.

Sorgintxulon lan egiteko leku bat badagoela esan duzu. Begoñako Udaltegia badago aukera hori?

Sorgintxulon badago lekua, baina txikia da auzoan dagoen gazte sortzaile guztiarentzat. Eta Udaltegia gertatzen dena da, badaudela taile-

rrak, badaudela espazioak... baina kurtsiloak egiteko. Badakit argazkilaritza laborategi bat dagoela, eta erabili ahal izateko eskatzera joan nintzen. Nik ez dut anplaiagailurik oso garestia delako, eta momentu horretan ez nuen inolako espaziorik. Baina Udaltegia dauden lekuak, kurtsiloak egiten dituztenentzat soilik dira; kurtsiloa ez baduzu egiten, ezin duzu erabili. Nik ez dut kurtsilorik egin nahi, eta laborategia erabiltzeko modu bakarra hori da. Udaltegia dauden gauzak beste modu batean erabili eta aprobetxatu daitezke. Tailer zabala izan beharko luke. Udaletxearena da, eta denok dugu eskubidea bertan parte hartzeko. Kurtsiloak jartzea beharrezkoa da, baina badakigunok ere espazio hori behar dugu. Nik ez diet eskatzen material guztia ematea, baina bai bertan dauden tresnak erabiltzeko aukera izatea.

Horrelako beharrak eskatzeko, taldean elkartuz gero errazagoa litzateke hori lortzea?

Nik uste dut baietz. Agian nik, astuna izanda eta udaletxera joanda lortu dezaket niri erabiltzen uztea, baina horren beharra duen hainbat jendek, ez luke jakingo nik aukera hori lortu dudarik ere. Horregatik, oso ona da elkarren arteko kontaktu bat mantentzea, bakoitza nondik nora dabilen jakiteko. Gauzak agian lortu ahal ditugu elkartzen bagara eta astunak bagara; beti gertatzen da horrela.


PRODUCTO NACIONAL

Hemengo arrautzak eta oilaskoak erosten eta jaten jarrai dezazuen, dauden arrazoiak eta zergaitiak azaltzera nator



OSO OILASKO AZKARRA EMATEN DUZU!!

pssss! Beno, ez da hainbesterako, nire plumozioko ichtenu, besterik ez.



Argi eduki behar dugu, gertaera honen errua belgitarrek dutela.


ZERGATIK?




Beraiek izan dira, gure oilasko-lagunei egoera txarrean zeuden elikagaiak eman dizkietenak



Mundu guztiak daki jateko ematen duguten pentsua, ez dagoela lehenengo mailako artoarekin osatua



Izan ere, animala hildekin egindako hirinak dira, erreak, deshidratatuak eta dioxinaz beterikoak. Hitz baten esanda: POZOINA




Bestalde, ni, adibidez, Huelvako baserri batean hazi naiz, narturako haizearekin kontaktuan eta basoko erreketako ura edaten.

ZEOZERTXO AHASTEN ARI ZARA!




DIOXINA ZUK HARNASTEN DUZU AIREAN ERE BADAGO, ZURE ARTOAREN HERBIZIDETAN ETA EDATEN DUZUN URAN!



Ba, jodidu, Coca-Cola bakarrik edaten ditugu, eta Frantziarra, informazio gehiagorako!

Enteratu zara?



AHI SEGURUENIK AZNALCOLLAR EZAGUTUKO DUZU, ZURE BASERRI ONDOAN DAGO ETA BERTAKO URAK EZ DIRA BEREZIKI GARBIAK.



Zorro


Sollube (663 m) Meñakabarrenatik

Mungiatik Bakiora bidean Larrauri herria dago. Hemen errepide bat irteten da eskoirantz, Meñakako Meñakabarrena auzunera eroango gaituena. Hementxe utziko dugu kotxea, "Seroetxea"ren ondoan.

Ehun bat metro egin beharoko ditugu atzerantz, eskoirantz doan errepide bat aurkitu arte, hemendik, Mendipe izeneko baserriraino joango gara. Bidean beste baserri batzuk ikusiko ditugu, baita, ehun metro lehenago eta ezkerretara, beste bide bat ere. Kontuz! Hau ez da gure bidea.

Mendipe baserrian pista zabal bat hartuko dugu. Hamar minutu inguruan ur-gordailu batera helduko gara; honen ezker aldetik pista pinudi batean sartuko da. Pinuditik irtenda baserri baten ondotik segituko dugu. Laster beste baserri bat ere ikusiko dugu, baserriotan ez da inor bizi, baina ez daude abandonaturik. Pistan aurrera, aldats gogorreen gora jarraituko dugu. Errebuelta batzuk egin ostean, urtegia aurkituko dugu. Hemendik, pistak leun jarraitzen du eskoian burdin-harizko hesi dugula, laster ezkerretara jo beharoko dugu hasi bat eta errepide bat zeharkatuz, landa batean sartuko gara orain, sarrean burdinazko ate mugikor bat eta iturritxo bat aurkituko ditugu.

Bidean jarraituz, aurreragotxo eta eskoia aldean egurrezko baserri bat ikusiko ditugu, hemendik aurrera zuzen gorantz, errepidea bi bider zeharkatuz tontorrean gara. Berton txartel-kutxa topatuko dugu (663 m.). Bertara heldu baino lehen egurrezko ate bat igaro behar dugu eta errepidetik





HOROSKOPOA

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra. Gauza gehiegi dituzu buruan, hartu lasai eta bizitzaz gozatu! Hori bai, ez zaitez lagunetaz ahaztu, daukazu onena dira eta.
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. Ez zaitez hain lotsatia izan. Bera ere zurekin hitz egiteko irrikitan dago, eman lehenengo pausua!
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. Juergatxoren bat egitea ondo dago, baina zurea gehiegi da. Gorputza hamar ordutako loaldia oihuka eskatzen daukazu!
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra. 360 gradutako aldaketa behar duzu. Aprobetxa uda horretarako, eta bete zure ametsak!
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra. Zer daukazu zuk herri horretan? Lagun on bat, akaso? Tira, jaiak hastear daude eta gutxienez, izango duzu bertara hurbiltzeko aitzakia!
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra. Udako haize epela ondo etorriko zaizu ideiak antolatzeko. Bitartean, San Ferminetara hurbiltzea daukazu, baina hori bai, ongi heldu zezena adarretatik!
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra. Gora animo horiek! Onena oraindik heltzeko dago, pazientzia izan eta aurkituko duzu hainbeste desiatzen duzun hori.
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra. Gaua ezezik, eguna ere gozatzeko dago, beraz, ez izan hain alperra eta mugitu ipurdi hori nonbaite-rra!
- Sagitarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra. Horrela begiratzen jarraitzen baduzu, begiak okertuko zaizkizu. Horren ordez, mingaina landu eta "hitzegin" ezazu berarekin!
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Ikasi besterik ez duzu egiten. Horrela jarraitzen baduzu, liburu aurpegia geldituko zaizu, beraz, goza ezazu uda lagunekin!
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. Badakit mendia, zuhaitzak, txoriak,...maite dituzula, baina zure burutxo hori zauden tokian kokatzea ere ez legoke batere gaizki!
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Lasai bizitzea garrantzitsua da, baina noizean behin, meta berriak finkatu eta horiek lortzera arriskatu beharko zinateke!


agenda

- Uztailak 11, mendi irteera Boluetako Eguzki Lorea Mendi Taldearen eskutik, Orduñara. Ibilbidea: Peña Angulo-Ungino-Tologorri.
- Uztailak 11, mendi irteera Santutxuko Mendi Taldeak antolatutik, Trinidad Iturgoyen mendira (1.237m.).
- Uztailaren 10etik 18ra, SANTUTXUKO JAIAK. Ekitaldi nagusiak:
 - ***Larunbata 10:**
 - Kuadrilen bazkaria Basarraten 15etan.
 - Pregoia eta segizioa 20:15etan Karmelon
 - Txupina, ikurrinaren igoera, sardinada eta txosnen inaugurazioa 21etan Basarraten.
 - ***Igandea 11:**
 - Diana eta txokolatada txosnetan 9etan.
 - Umeentzat berbena Basarraten 20etan.
 - Uda Zinema Sorgintxulon 22:30etan
 - Antzerkia Zonan 19etan.
 - ***Astelehena 12:**
 - Non dago Sangutxu? 19etan.
 - Antzerkia Basarraten 20etan.
 - Auzoko emakumeen afaria Karmelon 21:30etan.
 - 22:30etan Uda zinema Sorgintxulon.
 - ***Asteartea 13:** Gazte eguna.
 - Non dago Sangutxu? 19etan
 - Koadrilen arteko herri kirolak Briñasen 19:30etan.
 - Kalejira Sorgintxulotik hasita, 20:30etan.
 - Auzoko taldeen kontzertua Basarraten 21etan.
 - ***Asteazkena 14:**
 - 19etan Koadrilen arteko Ginkana Basarraten.
 - 20etan Bertso saioa Basarraten.
 - 21:30etan Triki-afaria Basarraten
 - 22:30etan Kontzertua Basarraten "Benetan" taldearekin.
 - ***Osteguna 15:**
 - Erromeria berezia Basarraten 20:30etan.
 - 21etan Larrain Dantza Basarraten.
 - 21:30etan Basarraten Play Back txapelketa
 - ***Ostirala 16:** Arrantzalez jatzeko eguna, eta Emakumeen eguna.
 - Hika antzerki taldearen "Xagukumeak", 19etan Karmelon.
 - Kontzertua Sorgintxulon 20etan: "Jouko Barik"
 - Color Humano eta Zea Mays taldeekin kontzertua 22etan Basarraten.
 - Atsedendian, erasoen aurkako kalejira zaratatsua.
 - ***Larunbata 17:** Errepresaliatuen eguna.
 - Presoen aldeko bazkaria Basarraten, 14:30, 15ak inguruan.
 - Gaztedi dantza taldea Hockey pistan, 20etan.
 - Berbena Urgabe taldearekin Basarraten, 22:30etan.
 - Kalejira eta topa gaueko 12etan, errepresaliatuen alde.
 - ***Igandea 18:**
 - Makailo txapelketa Basarraten. 9tan hasiera.
 - Bizkaiko Gaiteroak eta Fanfarrea, goizean zehar.
 - Bilbainadak, Jotak, Rantxerak... 20etan Basarraten.
 - 22etan, azken traka eta "Guztiak balio du" guda, jaiak bukatzeko.

Gerrari Despedidea

(Arratiko II. jentilen koplak lehiaketan sarituak)

Doñue: Abadiñon. Mauriziak kantetan zauen jotea.



1
 Hasiko al naz kantari?
 Hasiko al naz kantari?
 Gerra maite dauanari?
 Bakean itzi dagion
 bakean bizi danari
 bakean bizi danari
 hasiko al naz kantari?

2
 Ai Kosovo, ai Kosovo
 ai Kosovo, ai Kosovo
 ez zatut ikusten ondo
 munduko axe guztiak
 zaure aurka doaz zoro
 zaure aurka doaz zoro
 ai Kosovo, ai Kosovo.

3
 Errudun bat da Serbia
 errudun bat da Serbia
 bestea mundu erdia
 kostauko da osatuten
 egin dautsuen zauria
 egin dautsuen zauria
 errudun bat da Serbia.

4
 Penazko kate luzean
 penazko kate luzean
 danak doaz igesean
 begien negarra eta
 gorrotoa bihotzean
 gorrotoa bihotzean
 penazko kate luzean.

5
 Atoan joan da NATO
 atoan joan da NATO
 dana bonbardeetako
 errubakoak hiltera
 inoren mesederako
 inoren mesederako
 atoan joan da NATO.

Guztien jefe Solana
 guztien jefe Solana
 oilar handiena zana
 bere oilotokien be
 gobernetan ez dauana
 gobernetan ez dauana
 guztien jefe Solana.

7
 Soldadu batzuk be tira
 soldadu batzuk be tira
 españolak joan dira
 danak bialduko neukez
 bueltatuko ez balira
 bueltatuko ez balira
 soldadu batzuk be tira.

8
 Berbak eta bake planak
 berbak eta bake planak
 axeak daroaz danak
 horreik zer diren ez dakiz
 ezagutu ez dauzanak
 ezagutu ez dauzanak
 berbak eta bake planak.

9
 Kostauko da lortutea
 kostauko da lortutea
 danen gustoko bakea
 bea ez da errezaua
 hildekoak biztutea
 hildekoak biztutea
 kostauko da lortutea.

10
 Gerrari despedidea
 gerrari despedidea
 etorriko da bakea
 errespetetan danean
 herrien borondatea
 herrien borondatea
 gerrari despedidea.

Arkaitz Estiballes (Santutxuko Bertso Eskola)